

ARAUDIA

1. XIX. ZAZPI KURUTZE ibilaldi hau 2012 eko Ekainaren 10an ospatuko da. Irteera Azkoitiko plazan izango da, goizeko 4retan eta bukaera Azkoitiko Oteiza Frontoietan.
2. Izen-ematea banakakoa izango da. Horretarako hiru aukera izango dira:
 - a.- ETXEZA HARATEGIAN maiatzaren 14tik ekainaren 7ra.
 - b.- ANAITASUNA M.B.k EUSKADIKO KUTXAN duen kontuan dirua sartzea, ekainaren 7a baino lehen (3035 0031 79 0310014722) eta www.anaitasunamb.org (transferentziaren agiria, anaitasunamb@hotmail.com-era bidali edo egunean bertan ekarri.
 - d.- Egun berean, ibilaldia hasi aurretik.Dirua Euskadiko Kutxan sartu eta izena egun berean ematen dutenek, ibilaldia hasi baino orduerdi lehenago, euren txartela jasotzeko, irteerara gerturatu beharko dute. Euskadiko Kutxan ordainduz gero, agiria erakutsi beharko da.
3. Izen ematea aldeztu aurretik 13 euro izango da, eta egun berean 16 euro.
4. Bidea ongi seinalatuta egongo da.
5. Beharrezkoa da antolatzaileek jarritako kontrol guztietatik pasatzea eta araututako gutxieneko denborak nahitaez betetzea. Honela egin ezean, ez da txartelik zigilatuko.
6. Iritsieraren arabera sailkapenak ez du inolako baliorik izango.
7. Oroigarri bat emango zaie ibilaldia bukatzen duten guztiei.
8. Antolatzaileek hornidura guneak jarriko dituzte toki hauetan: Aittola, Hirukurutzeta, Gorla, Santa Barbara, Izaspi eta Oleta.
9. Antolatzaileek sorospen guneak jarriko dituzte sortzen diren beharrei erantzuteko.
10. Bukaeran duxak egongo dira.
Eta nola ez, txanpaina banatuko da.
11. Ibilaldian edo ondoren ezbeharra edo min hartzea gertatuko balitz, ANAITASUNA M.B.k ez du bere gain hartuko horren erantzukizunik.
12. Hemen aipatu ez den zerbait gertatuz gero, antolatzaileek izango dute azkenengo hitza.